

Saltokitik kanpoko erosketak



JUSTIFIKAZIOA

Saltokitik kanpo egiten diren salerosketak gero eta ohikoagoak dira, eta etxebizitza pribatuetan, aisialdi- edo bilera-lekuetan, lantokietan eta antzekoetan egiten direnak hartzen dituzte barnean.

Beharrezkoa da kontsumitzaileek zer eskubide eta betebeharrak dituzten jakitea, baita zer informazio eman behar den edo kontratuari uko egiteko zer modu dauden ere.

HELBURUAK

- Merkataritza-saltokitik kanpoko erosketa-modalitate desberdinak ezagutzea.
- Saltokitik kanpoko erosketa-modalitateen benetako adibideak ezagutzea.
- Erosketa bat egin edo zerbitzu bat kontratatu aurretik nahitaezko eta beharrezko informazioa zein den ulertzea.
- Online erosketa segurua egiteko aholkuak.
- Kontsumo-gatazkak saihesteko kontuan hartu beharreko gakoak ezagutzea.
- Erosleen eskubideak identifikatzea.
- Kontsumoko gatazkak konpontzeko bide desberdinak bereiztea eta horien funtzionamendua ezagutzea.

EDUKIAK

- Merkataritza-saltokitik kanpo erosteko modalitateak.
- Erosi edo kontratatu aurreko informazioa.
- Kontratua eta faktura.
- Salmenta-ondokoa. Atzera egiteko eskubidea. Itzulketak.
- Gatazkak konpontzeko bideak. Nola jokatu.

ARIKETAK

HASIERAKO FASEA (aurretiko jarduera)

Saltokitik kanpoko erosketekin lotutako bizipenak jasotzea.

Formatu digitalean egindako galdetegia, merkataritza-saltokitik kanpoko erosketa eremuetan izandako esperientzia pertsonalei buruz hausnartzeko.

GARAPEN FASEA (saioa)

- Saltokitik kanpoko erosketa-modalitate desberdinak azaltzea eta adibide errealak identifikatzea.
- Erosi aurretik eta erosi ondoren kontuan hartu beharreko kontzeptuak azaltzea.
- Online erosketa baten simulazioa.

- Kontsumoko gatazkak konpontzeko bide desberdinen mapa kontzeptuala.
- Ondorioak.

APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (ondorengo fasea)

- Online merkataritzari buruzko informazioa eta jarduera praktikoak uztartzen dituen kontsumo-erronka. Online erosketetan kontsumitzaileen eskubideak eta betebeharrak barneratzeko ekintzak dira.

OINARRIZKO KONPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

DISZIPLINAKOAK

- Teknologiarako konpetentzia.
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.

ZEHARKAKOAK

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
- Izaten ikasteko konpetentzia..

METODOLOGIA

- Bakarkako lana.
- Tutoretza-laguntza (Mentoring).
- Design thinking.

ANTOLKUNTZA

*IKT baliabideak eta tresnak	Espazioak eta taldeak	Iraupena
Ordenagailua/Tableta/Mugikorra. Internet konexioa.	Parte-hartzaileek banaka edo taldean lan egingo dute, aukeratzeko duten modalitatearen arabera (zuzenean edo diferituan).	Saio bat - 60'

**Esperientzia Kontsumobideko zentroetatik kanpo garatzen bada, baliabideak eskuragarri dauden ala ez jakinarazi.*

EBALUAZIOA

IRAKASLEAK

Asebetetze inkesta.

IKASLEAK

Asebetetze inkesta.